




Markesaren paisaiak

BERRIZ

Ezaugarriak


Berrizko leku esanguratsuetako bat Markesaren lorategia da. Bi hektarea baino gehiago dituen natur-espazio honek, mundu osoko 27 zuhaitz eta landare espezie daukaz, bere urmael eta guzti.

Gaur egungo udaletxearen aurrealdean dago lorategia, garai batean Berrizko markesaren etxea izan zena. Eta arinago, Berriztarren Jauregia, gotorleku batean jatorria duen Erdi Aroko dorretxea.

San Joan Ebanjelariaren eliza ere nabarmentzekoa da. XVI. mendearen bigarren erdialdeko euskal testuinguru arkitektonikoaren adibide garbia da, eta parrokiak gordetzen duen erretaula churriguereskoa Bizkaiko aipagarrienetako bat da.

Bisitan nabarmentzekoak:

- San Joan Ebanjelariaren Eliza, Bizkaiko erretaula churrigueresko finenetarikoa.
- Udaletxea, antzinako Berriztarren Jauregia.
- Markesaren lorategia
- Ganeketxeko bolatokia eta Elizondo Plaza
- Legañoako San Pedro ermita, Erdi Aroko nekropolia.



📍 Irteera puntua: Elizondo plaza

🕒 Iraupena: 90 minutu

🚶 Zailtasun maila: Erreza

👤 Taldea: Gehienez 25 pertsona

🗣️ Hizkuntza: Euskara, gaztelera

💶 Prezioa: 185 € (BEZ barne)

Oharra

Bisita hau zure beharrianetara egokitzen ez bada, egiguzu kontsulta eta aztertuko dugu egokitzeko aukera. Eskaintzen ditugun bisita gidatuez gain, norbere beharrianen neurritik bisitak prestatzeko aukera eskaintzen dugu. Idatzi edo deitu lasai: info@gerediaga.eus / 946818066